



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko apirilaren 13a

37. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).

#### D SAILA:

##### **Hitzarmenak:**

—Estatuko Administrazio Orokorraren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta “Trenbide Azpiegituren Administrazioailea” (ADIF) entitate publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Zaragoza-Iruña abiadura handiko linearen Nafarroako zatia egiteko. Osoko Bilkurak emandako baimena (14. or.).

—Estatuko Administrazio Orokorraren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Trenbide Azpiegituren Administrazioailearen (ADIF) arteko lankidetzaren hitzarmena, Zaragoza-Iruña abiadura handiko linearen Nafarroako zatiko zenbait jarduketaren mandatu egiteko. Osoko Bilkurak emandako baimena (14. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Nafarroako osasun-sistema pribatizatzeko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (15. or.).

—Galdera, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetarako hezitzaile izateko oposizio-lehiaketaren deialdiari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (16. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa**

#### ZIOEN AZALPENA

Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2007ko martxoaren 16an onetsi zuen Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legea, zeina 8/2007 zenbakiarekin argitaratu baitzen apirilaren 2ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Foru Legeak bilaturiko helburuetako bat zen Nafarroako polizia-kidegoen estatutu berezia arautzea. Hala esaten da IV. tituluaren

Izan ere, Foru Legeak jasotzen zuen enpleguen izenak aldatzea, hautaketa-printzipioak sinplifikatzea, karrera profesional berri bat moldatzea eta, era berean, "bigarren jarduera" deritzon administrazio-egoera berria xehetasunez garatzea. Halaber, diziplina-araubidea berridazten zen, une horretan metatuta zegoen esperientziaren arabera.

Alabaina, Foru Legeak indarrean daraman bi urte baino gehiagoko epe honetan, metaturiko esperientziak erakusten duena da arauk horren zenbait alderdi aldatu eta zehaztu beharra, bai eta beste batzuk garatu beharra; izan ere, nahiz eta haren helburuak zuzenak izan, Foru Legea betetzeko hartu diren neurriek ez dituzte lortu erdietsi nahi ziren emaitzak, edo, beste kasu batzuetan, Legearen ez-betetzeak nabariak dira, eta legegintza-izaerako bultzada bat beharrezkoa da legea betetzeko.

Aldaketa honen bidez lortu nahi da zenbait alderdiren arauketa finkatzea, era horretan lortu ahal izateko herritarren beharrezko erantzun integrala eskainiko dien polizia-eredu bat, hurbileko polizia bat, zeinak garbi izanen baitu zerbitzu publiko gisa duen izaera, bai eta gizartearen zerbitzuan diharduen bitartekoa izateko zeregin iraunkorra daukala.

Beharrezkoa da herritarren segurtasunaren alorrean Nafarroako gizarteari eman behar zaion erantzun poliziala planifikatzea, delituaren prebentzioaren, zerbitzuaren hurbiltasunaren eta herritarrekiko zerbitzuaren ekitatearen ikuspegitik. Horretarako, ezinbestekoa da, halaber, lan-taldeen espezializazioan aurrerapausoak ematea, halako moldean non erantzuna integrala eta espezializatua izan ahal izan dadin, Nafarroako polizien artean behar bezalako koordinazioari eutsiz.

Orobat ezinbestekoa da Nafarroako poliziak Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoekin koordinatu beharra jasotzea, emandako zerbitzu publikoari exijitzekoa zaion eraginkortasuna lortze aldera. Foru lege proposamen honen asmoa da aurrerapausoak ematea gure Foru Komunitatean

Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoen eta Nafarroako polizien artean dagoen osagarritasunean, lankidetzan eta elkarlanean, betiere ardatz gisa harturik leialtasun instituzionala eta elkarrekiko begirunea.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea honela aldatzen da:

Bat. Honela idatzita agertuko da 6.3. artikulua:

“6.3 artikulua. Kidego bakoitzean honako hauek egon beharko dira:

a) Komisario nagusi bat ehun kideko.

b) Komisario bat berrogeita hamar kideko edo hogeita bost kideko gorako hondarreko.

c) Inspektore bat hogeita hamar kideko edo hamabost kideko gorako hondarreko.

d) Inspektoreorde bat hogeita hamar kideko edo hamar kideko gorako hondarreko.

e) Kabo bat lau eta zazpi kideren bitarteko talde bakoitzeko edo horren hondarreko, administrazio bakoitzak finkatzen duen bezala.

Nafarroako Gobernuak, foru dekretu baten bidez, zifra horiek aldatzeko ahalmena izanen du, giza baliabideak hobeki antolatzeko. Udaltzaingoei dagokienez, toki entitateek eskatu ahalko dute aldaketa, betiere Nafarroako Udaltzaingoa Koordinatzeko Batzordeak adostasun txostena eman ondoren.

Bj. II. titulua, II. kapitulua, Nafarroako Foruzaingoaren Kontseilua, kendu egingen da eta, beraz, ez du edukirik izanen.

Hiru. Honela idatzita agertuko da 29.1. artikulua:

“29.1. artikulua. Hautaprobak.

Hautaprobak objektiboak izanen dira, eta izangaiek aurretiaz ezagutuko dituzte ebaluaziorako parametro teoriko eta praktikoak. Hautaprobetan sartuko dira, gutxienez ere, egoera fisikoari buruzko probak, eskatutako maila akademikoaren araberako ezagutza-probak eta proba psikoteknikoak”.

Lau. 30.1 b) artikulua honela idatzita agertuko da:

“30.1.b) artikulua. Eskakizunak.

1. Nafarroako polizia-kidegoetako lanpostuetan edo funtzionario gisa sartzeko hautaprobetan onartua izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

b) Adinez nagusia izatea eta 40 urte baino gehiagoko adinik ez izatea”.

Bost. Honela idatzita agertuko da 35. artikulua:

“35. artikulua. Inspektore-enpleguan sartzea

Inspektore-enpleguan sartzeko, prozedura hauek bete beharko dira:

a) Gutxienez lanpostuen % 60 barne-igoeraren bidez beteko dira, Nafarroako polizia kidegoetako inspektoreordeen arteko kategoriaz igotzeko lehiaketa bat eginda. Izangaiei hiru urteko edo gehiagoko antzinasuna eskatuko zaie sarjentu kategorian eta, orobat, eskatutako erdi mailako titulazioa. Titulurik ezean, kategorian horretan bost urteko edo gehiagoko antzinasuna beharko dute.

Aurreko idatz-zatian aipatzen diren deialdietan, polizia kidegoko kideentzako barne-igoerarako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat gainerako lanpostu hutsekin, ezarriko betebeharrak betetzen dituzten Nafarroako polizia kidegoetako kide guztientzat irekia. Txanda irekian betetzen ez diren postuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio. Idatz-zati honen aplikazioaren ondorioetarako, hiru lanpostu hutsetik lehendabizikoa eta hirugarrena barne igoera txandakoak izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa.

b) Lanpostu hutsen 100eko 20 bitarte, merezimenduen lehiaketaren bidezko prozedura erabiliz eta lanpostuaren edukari eta eginkizunei buruzko proba praktikoa baztertzailer bat eginez, Nafarroako polizia kidegoez besteko segurtasun kidego eta indarretako B mailako edo haren parekidetzat jotako mailako kideen artean. Eskatzen den erdi mailako titulua izan eta betetzen ari diren lanpostuan hiru urteko antzinasuna eduki beharko dute. Era berean, proba psikoteknikoak ere jarri ahalko dira, izangaia lanpostuaren profil profesioerakoaren zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko.

Prozedura hori gauzatzen ez bada, lanpostuak barne igoeraren txandari gehituko zaizkio.

c) Lanpostu hutsen 100eko 20 polizia kidegoetan sartzeko kasuko hautaprobak eginez, deialdian eskatzen den titulazioa izan eta gainerako betebeharrak betetzen dituzten izangaiei artean.

d) Idatz-zati honetako b) eta c) letretan aipatutako txanden bidez betetzen ez diren lanpostu hutsak barne-igoeraren bidez beteko dira”.

Sei. Honela idatzita agertuko da 36. artikulua:

“36 artikulua. Komisario kategorian sartzeko modua

Komisario kategorian sartzeko modua eta prozedura honakoak izanen dira:

a) Barne-igoeraren bidez –oposizio-lehiaketa eginez– betetzeko deitutako lanpostuen 100eko 80, behar den goi mailako titulua izan eta lan horretan gutxienez hiru urteko antzintasuna duten Nafarroako polizia kidegoetako inspektoreekin beteko da. Era berean, erdi mailako titulua dutenek ere parte hartu ahalko dute, baldin eta gutxienez ere bost urteko antzintasuna badute inspektore lanpostuan.

Aurreko idatz-zatian aipatzen diren deialdietan, polizia kidegoko kideentzako barne-igoerarako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat gainerako lanpostu hutsekin, ezarritako betebeharrak betetzen dituzten Nafarroako polizia kidegoetako kide guztientzat irekia. Txanda irekian betetzen ez diren postuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio. Idatz-zati honen aplikazioaren ondorioetarako, hiru lanpostu hutsetik lehendabizikoa eta hirugarrena barne igoera txandakoak izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa.

b) Deitutako lanpostuen 100eko 30, gutxienez, Nafarroako polizia kidegoetakoak ez diren A mailako edo horri asimilatutako mailako beste segurtasun indar eta kidego batzuetako kideekin bete ahalko dira, oposizio-lehiaketa bidez; horretarako, behar den goi mailako titulua eta hiru zerbitzu-urte beharko dira. Prozedura hori ez bada abian jartzen edo, abian jarrita, lanpostuak ez badira betetzen, hutsik gelditutako lanpostuak aurrekoari gehituko zaizkio.

c) 39. artikuluko 4. idatz-zatian jasotako gaitasun-ikastaroa egin behar dutenak gutxiago badira deialdian jasotako lanpostu kopurua baino, gainerakoekin beste deialdi bat egin ahalko da, lanpostu horiek oposizio-lehiaketa bidez betetzeko, eta deialdi horretan Nafarroako polizia kidegoetako kideek parte hartu ahalko dute, baldin eta behar den goi mailako titulua badute eta kidego horietan hamar zerbitzu-urte baino gehiago egin badituzte”

Zazpi. Honela idatzita agertuko da 39. artikulua:

“39 artikulua. Lanpostuak eskuratzeko prozedura.

1. Lanpostuak eskuratzeko foru lege honetan jasotako prozedurek, gutxienez ere, honakoak baloratuko dituzte: administrazio publikoetan emantiko zerbitzuak, polizia-eginkizunarekin zerikusia duten prestakuntza-, irakaskuntza- eta ikerkuntza-jarduerak, hizkuntzak jakitea eta betetako lanpostuak baldin eta erregelamenduz horren balorazio objektiboa egiteko prozedura ezarri bada.

2. Oposizio-lehiaketa prozeduretako oposizio faseak, gutxienez, eskatzen den maila akademiko-

ari egokitutako eta bete nahi den lanpostuarekin bat datozen izaera objektiboko ariketa praktikoak eta ezagutzakoak izanen ditu, eta ariketa psikoteknikoak, izangaiak lanpostuaren profil profesiografikoari zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko.

3. Kategoria-igoeraren lehiaketako prozedurek, 1. idatz-zatian ezarritakoaz gain, lortu nahi den lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzko izaera objektiboko proba praktikoa baztertzaila bat izanen dute, gutxienez. Era berean, proba psikoteknikoak ere izan ditzakete, izangaiak lanpostuaren profil profesiografikoari zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko.

4. Foru lege honetan lanpostuak eskuratzeko prozedura guztietan izanen da eskuratu nahi den lanposturako gaitasun-ikastaro bat gainditu beharra, Nafarroako Segurtasun Eskolak emana.

5. Aurreko idatz-zatietan jasotako xedapenak erregelamenduz garatuko dira Nafarroako polizia kidegoetako lanpostu bakoitzerako”

Zortzi. Honela idatzita agertuko da 43. artikulua:

“43 artikulua. Nafarroako polizien prestakuntza

1. Nafarroako polizia kidegoetako kideen prestakuntzak eta hobekuntzak Nafarroako poliziei buruzko plan zuzendarian ezarritako aurreikuspena beteko dute, eta 4. artikuluan adierazitako printzipioei egokituko zaizkie. Halaber, honako irizpideak bete beharko dute:

a) Profesionala eta etengabea izanen da.

b) Administrazio publikoen menpeko ikastetxetan egiten diren ikasketak Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak baliozkotu ahalko ditu. Ministerioak, horretarako, kontuan hartuko ditu ikasketak horietako bakoitzera sartzeko eskatutako titulazioak eta ikasketen iraupena.

c) Aipatutako irakaskuntzak eta ikastaroak emateko, erakundeen arteko lankidetzak sustatuko da unibertsitatearekin, botere judizialarekin, Ministerio Fiskalarekin, indar armatuekin eta aipatutako ikastetxeei berariaz interesatzen zaizkien bestelako erakunde, zentro edo establezimenduekin.

2. Nagusiki, Nafarroako Segurtasun Eskolak prestatuko ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpe baitago, Nafarroako polizia kidegoetako kideak, udal agenteak eta udaltzain laguntzaileak, eta, era berean, horiek hautatzeko prozesuetan ere parte hartuko du. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko c) letran aipatzen diren gainerako zentro edo establezimenduek ere prestakuntza hori eman ahalko dute eta hautapen-prozesuetan parte hartu ahalko dute.

2. Erregelamenduz ezarriko da zein izanen den aurreko idatz-zatian aipatutako langileen prestakuntza-araubidea, eta, bereziki, horiek izanen dituzten eskubideak eta betebeharrak; arau horiek, betiere, oinarri izanen dituzte objektibotasunaren printzipioa, gardentasunarena, aukera berdintasunarena, espezialitatearena eta publikotasunarena.

3. Nafarroako Segurtasun Eskolaren eginkizunen artean eginkizun berberak edo antzekoak dituzten erakunde publikoek emandako ikastaro eta diplomak osorik edo partez baliozkotzea izanen da, baita eskolak berak lehenago emandakoak ere, betiere edukiak berdinarak badira. Horrelakoetan, behar den puntuazioa esleitu zaien tituluariei. Halaber, artikuluko honetako 1. idatz-zatiko b) letran aipatzen diren baliozkotze-eskabideak bideratzeaz arduratuko da.

Bederatzi. Honela idatzita agertuko da 44. artikulua:

“44. artikulua. Sustapena.

1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen gora egiteko modua bitakoa da: kategoriaz igotzea, foru lege honetan ezartzen diren prozeduren bitartez, edo graduz igotzea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarrita dauden arau orokorretan agindutakoaren bidez.

2. Nafarroako polizia kidegoetako kideek Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioentzako igoera txandako prozeduretan parte hartzen ahalko dute, baina egiazki zortzi zerbitzu-urte ematen dituztenetik aurrera.

3. Nafarroako polizia kidegoetako kideek partaide diren Administrazioko merezimenduen lehiaketetan eta lanpostuen leku-aldatzeetan parte hartu ahalko dute, kidegoaren barruko zerbitzuan 10 urte eman badituzte edo 45 urte baino gehiago badituzte”.

Hamar. Honela idatzita agertuko da 45. artikulua:

“45. artikulua. Destinoen banaketa.

1. Polizia kidegoen barruko destinoak betetzeko, merezimendu, gaitasun eta antzintasun printzipioak hartuko dira kontuan. Honakoak izanen dira sartzeko modalitateak: lehiaketa, zeina sistema arrunta baita, berariazko lehiaketa eta izendapen askea.

2. Berariazko lehiaketa erabili ahalko da erantzukizun edo prestakuntza bereziak eskatzen diren lanpostuak betetzeko. Sistema horren bitartez sartzeko ezartzen diren hautaprobek objektiboak izan

beharko dute, eta izangaiak, aurretik ebaluatuko diren parametroak ezagutu beharko dituzte.

3. Izendapen askeko zuzendaritza lanpostuak erregelamendu bidez ezarriko dira, eta gehieneko ehuneko bat ere ezarriko da, plantilla osoan izendapen askeko sistemaren bitartez izenda daitezkeen lanpostuen kopurua zehazteko.

Izendapen askeko sistemaren bitartez lanpostuak betetzeko izendatutako funtzionarioak, izendatu zituen organoak libreki kendu ahalko dituzten lanpostuetatik. Hala eginez gero, zuzendaritza-karguari dagozkion osagarriak jasotzetik galditu eta berehala jatorrian atxikita zeuden lanpostura itzuli beharko dute. Horretarako, funtzionario guztiei jatorrizko lanpostu bat esleitu beharko zaie.

4. Plantilla organikoetan, polizia kidegoetako lanpostuak aipatuko dira, eta haietan ezarriko dira lanpostuak, behar bezala sailkatuak. Soilik honakoak aipatuko dira berariaz:

a) Lanpostu bakoitza zein mailari atxikita dagoen.

b) Lanpostuaren zenbakia eta izena.

c) Zein unitate organikoren menpean dagoen.

d) Zein egoitzatan edo herritan dagoen.

e) Zein enplegu edo kategoriatakoentzat erreserbatuta dagoen.

f) Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipaturiko lanpostuak betetzeko sistema.

g) Lansari osagarriak.

h) Bigarren jarduerako lanpostuak”.

Hamaika. Honela idatzita agertuko da 47. artikulua:

“47 artikulua. Bigarren jarduera.

1. Hauxe da bigarren jardueraren helburua: Nafarroako polizia kidegoan jardunean dauden langileen eraginkortasuna bermatzea eta lanbide karrera denboraren joanean edo gaitasun fisikoak edo psikikoak ustekabeen murriztean gertatzen diren aldaketetara egokitzea. Bigarren jardueraren egoera administratiboa destinoduna ala destinorik gabea izan ahalko da.

Destinorik gabeko bigarren jardueraren egoerara pasatzen diren funtzionarioek 20 urteko zerbitzu efektiboak beteta eduki beharko dituzte zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo nahitaezko eszedentzian Nafarroako polizia kidegoetan, eta kide direneko polizia kidegoaren esku geratuko dira harik eta erretiroko adinera iritsi arte.

2. Adin batera iritsita (betiere, berrogeita hamabost urtetik gora), edo gaitasun fisikoak edo psikikoak murrizten diren kasuetan, Nafarroako polizia kidegoetako kideek bigarren jardueraren egoera administratibora pasatu ahalko dira eta, erretiroaren adinera iritsi aurretik, interesdunak eskatuta nahiz ofizioz, gaitasun fisikoak nahiz psikikoak gutxituz gero, bigarren jarduerako zerbitzuetan eman ahalko zaie destinoa:

a) Dagokien kidegoan bertan.

b) Nafarroako beste polizia batzuetan, betiere bi administrazioek bidezko lankidetzeta hitzarmena sinatu badute. c) Administrazio bereko beste lanpostu batean, prestakuntzarekin, segurtasun arloko nahiz beste arlo batzuetako politikekin, polizia administratiboko jarduerekin (adierarik zabalenean) zerikusi zuzena duena, administrazio horren eskumeneren esparruan, konparazio batera, zehapen espedienteen tramitazioetan laguntzea, lan administratibo edo exekutiboak, zaintza, kontrola, ikuskapenak eta beselakoak, betiere langilearen mailarentzat eta jakintzarentzat egokiak badira eta ahalegin fisiko, arrisku edo zailtasun gutxiagokoak badira.

3. Nafarroako Poliziei buruzko Plan Zuzendariaren ezarritako aurreikuspenen arabera, plantilla organikoetan adierazi beharko dira bigarren jarduerako multzoan sartu ahal izanen diren lanpostuak, eskatzen duten ahalegin fisiko, arrisku edo zailtasun txikiagoan oinarriturik. Urtero, abenduaren 31a baino lehen eta behar den negoziazio kolektiboa eginda, Administrazioak destinorik gabeko bigarren jarduera lor dezaketean funtzionarioen kopurua ezarriko du.

4. Erregelamenduz finkatuko da bigarren jarduerako zerbitzuak noiz eta nola eman behar diren –nolanahi ere, aipatu egoerara sartu aurretik betetzen zen lanpostuaren koadramendu berean egiten da–, bai eta egoera horretara igarotzea ekar dezaketean ezgaitasun medikoen maila ere.

5. Bigarren jarduerako egoeran dauden Nafarroako polizia kidegoetako kideek, beren kategoriari dagozkion oinarritzko ordainsariak eta aitorturik dituzten ordainsari pertsonalak jasoko dituzte, egiazki betetzen duten lanpostuak dituen osagarriez gainera

Dena dela, bigarren jarduerara igarotzea Administrazioak ofizioz agindu badu uste duelako lanbidean aritzearen ondorioz langilearen gaitasun fisiko edo psikikoa nabarmen jaitsi dela, eta lanpostu berriaren oinarritzko ordainsariak eta osagarriak egoera horretara igaro zen unean bestean jasotzen zituena baino baxuagoak badira, funtzionarioak aldi baterako osagarri pertsonala jasotzeko eskubidea izanen du, bi ordainsarien arteko aldea adinakoa.

Destinorik gabeko bigarren jarduerako egoeran jarduten duten bitartean, kasuan kasuko antzinatasunari eta kategoriari dagozkion oinarritzko lansari guztiak jasoko dira, bai eta aipatu kategoriari oro har dagozkion lansari osagarrien 100eko 80 eginen duen osagarri bat ere, ebaketarengatik pen-tsoiari eta sariei dagozkien ordain guztiez gainera.

6. Bigarren egoeran emandako denbora, antzinatasunaren eta eskubide pasiboen ondorioetarako, egoera horretara igaro aurretik zuen lanpostu-ana emana balitz bezala konputatuko da.

7. Bigarren jardueran dagoen funtzionarioak ezin izanen du kategoriaz igotzeko prozesuetan parte hartu.”

Hamabi. Honela idatzita agertuko da 49. artikulua:

“49 artikulua. Araubide orokorra eta espezialitateak.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen eskubide eta eginbeharrak Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuari buruzko arauetan ezarritakoak izanen dira, foru lege honen ondoriozko berezitasunekin, hauekin bereziki:

a) Zin egitea edo hitz ematea Konstituzioari, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetze-ari buruzko Lege Organikoari eta legeei men egiten diela.

b) Foru lege honen 4. artikuluan ezarritako oinarritzko jarduketa printzipioen ondoriozko eginkizunak bete beharko dituzte eta 2/1986 Lege Organikoko 6. artikuluan aitortutako eskubideez gozatuko dute.

c) Beren interesak defendatze aldera, sindikatuetan afiliatzeko eskubidea izanen dute eta, orobat, sindikatuetatik atera eta beste erakunde batzuk sortzeko, betiere askatasun sindikalari buruzko legediak ezarritako baldintzak betez gero, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko gainerako funtzionarioen baldintza berdinetan.

d) Grebarako eskubidea Segurtasun Indar eta Kidegoentzat eskubide horren gainean ezarrita dauden xedapenen arabera erabiliko da.

e) Lanaldia eta oporrak eta baimenak hartzeko berariazko modua erregelamendu bidez xedatuko dira, polizia-eginkizunaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta. Urte naturala hasi aurretik lan-egutegiak ezarriko dira; haien arabera, lanaldia eguneko edo gaueko txandatan izan ahalko da, eta guardia lokalizatuak nahiz bertan egotekoak ezarri ahalko dira, bai eta jai-egunetan lan egin behar izatea ere.

f) Bidezko ordainsaria jasotzeko eskubidea izanen dute; hartan, honakoak hartuk dira kontuan: prestakuntza-maila, bateraezintasunen araubidea, zerbitzu-arrazoiengatik eta egitekoen dedikazio eta arriskuarengatik mugikortasuna, eta lan-ordutegien eta haien egituratze bereziaren berariazko-tasuna. Ordainsarien kontzeptuak eta zenbatekoak hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaizkio.

g) Beren eginkizunetan egindakoengatik erantzukizuna eskatzen zaien auzi guztietan, atxikitua duen administrazio publikoko nahiz kanpoko profesionalek laguntza emateko, ordezkatzeko eta aldezteko eskubidea izanen dute, administrazioaren kontura.

h) Polizia izatearekin lotutako kalte pertsonal edo materialak jasanez gero, erregelamenduz ezarriko den kalte-ordainen sistemaren onuradun izateko eskubidea izanen dute.

i) Beren eginkizunetan ari direnean, herritarrek hala eskatzen badiete, beren buruak identifikatu beharko dituzte.

j) Nafarroako polizia kidegoetako kideek eskubidea dute urtean azterketa mediko bat egin dakien.

Hamahiru. Honela idatzita agertuko da 50. artikulua:

“50. artikulua. Lansariak.

1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek ondoko kontzeptu hauei dagozkien ordainsariak jasoko dituzte, ez besterik:

A) Norberaren oinarrizko ordainsariak:

a) Oinarrizko soldata, mailari dagokiona.

b) Graduari dagokion ordainsaria.

c) Antzinasun saria.

B. Ordainsari osagarriak:

a) Berariazko osagarria.

b) Lanpostu-osagarria.

c) Aldi baterako osagarri pertsonala bigarren jardueran aritzeagatik.

C. Bestelako ordainsariak:

a) Zerbitzuan izandako gastuen kalte-ordaina.

b) Egindako bidaien kalte-ordaina.

c) Bizilekua aldatzea dakarren nahitaezko leku-aldatzeagatik ematen den kalte-ordaina.

d) Familia laguntza.

e) Aparteko orduen konpentsazioa.

f) Jaiegunetan lan egitearen konpentsazioa.

g) Gauaz lan egitearen konpentsazioa.

h) Langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartzeagatik eta prestakuntza ikastaroak emateagatik ematen diren konpentsazioak.

i) Lehenagoko ordainsariak foru lege honetan adierazitakoa aplikatuz ateratzen dena baino handiagoak izateagatik ematen diren konpentsazioak.

2. Norberaren oinarrizko ordainsariak eta aurreko idatz-zatiko C letran adierazitakoak Nafarroako Administrazio Publikoen gainerako funtzionarioei oro har aplikatzekoak zaizkien arauen arabera banatuko dira”

Hamalau. Honela idatzita agertuko da 52. artikulua:

“52 artikulua. Egoitza.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek ez dute bizi behar izanen lan egiten duten herrian, salbu eta zerbitzu-arrazoiengatik herri berean bizitzeko betebeharra ezartzen denean”

Hamabost. Honela idatzita agertuko da 54. artikulua:

“54 artikulua. Esker onak, ohoreak eta sariak.

1. Nafarroako Polizia kidegoetako kideen esker onak, ohoreak eta sariak erregelamendu bidez arautuko dira. Nolanahi ere, sarietan zenbait suposamendu hartuko dira aintzat, eta gutxienez ere lau multzo egingen dira:

a) Zerbitzu egintzak, eredugarriak diren edo arrisku handia duten jarduerekin, ezgaitasun-lesioekin nahiz heriotzarekin.

b) Paimena eragiten duten jarduerak, aparteokak eta balio handikoak; ebaketak edo zauri larriak, erabateko ezgaitasuna ekartzen ez dutenak.

c) Garrantzi bereziko zerbitzuak, dedikazio berezikoak edo premia duten pertsonen onura egitekoak, lanbidearen ezagutzarako lagungarri diren lan zientifikoak edo argitalpen teknikoak.

d) Nafarroako polizia kidegoen antzinasuna”

Hamasei. Honela idatzita agertuko da 56. artikulua:

“56 artikulua. Aplikatzekoa den araubidea.

1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen ordezkari, negoziatio kolektiboari eta lan baldintzetan finkatzeko eztabaidetan parte hartzeari dagokienez, Nafarroako Administrazio Publiko-

en zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarrita dagoenari segituko zaio.

2. Foruzaingoaren esparruan, negoziatorako mahai sektorial bat eratuko da. Mahai horrek gaitasuna izanen du kidegoarekin lotutako alderdi guztietan akordioak lortzeko”

Hamazazpi. Honela idatzita agertuko da 58,1. artikulua:

“58.1 artikulua. Diziiplina hutsegiteen sailkapena eta preskripzioa.

1. Diziiplina hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Hutsegite arinek hilabeteren buruan preskribatuko dira, larriek urtebeteren buruan eta oso larriek hiru urteren buruan”

Hemezortzi. Honela idatzita agertuko da 59. artikulua:

“59 artikulua. Hutsegite arinak.

Hauek dira hutsegite arinak:

a) Puntualtasuneko hutsegiteak, behin eta berriz gertatutakoak hil beraren barruan, justifikatutako arrazoirik gabe (hamabi baino gutxiago izanen dira).

b) Hilabeteko epean behin, justifikatu gabeko arrazoirik gabe huts egitea.

c) Lanaldia ez betetzea, justifikatutako arrazoirik gabe, hilabeteko epean behin.

d) Herritarrekiko, agintariekiko, nagusiekiko eta lankide edo menpekoekiko harremanetan desegoki joketzea.

e) Zerbitzuetako lokalak, instalazioak, ibilgailuak, materialak eta agiriak gaizki kontserbatzea.

f) Lanean dihardutela edari alkoholodunak edatea.

g) Lanerako baliabide informatiko eta materialak desegoki erabiltzea eta erabilerako ezarritako jarraibideak ez betetzea, hala nola sistema informatikoetan sartzeko pasa-hitzak gaizki erabiltzea.

h) Uniformeari eta agurrari buruzko arauak urratzea.

i) Tresna edo baliabide ofizialak norberaren onerako erabiltzea edo horrelako erabilerara baimentzea, edo horretarako bidea hirugarrenei erraztea, bidezko arrazoirik gabe eta nagusiarri jakinarazi gabe.

j) Lanbide kredentzialak bidezko arrazoirik gabe erakustea.

k) Zerbitzuaren funtzionamendu eraginkorrean eraginik ez duten edo Administrazioari nahiz herri-

tarrei kalterik eragiten ez dieten betebeharrak betetzerakoan atzerapenez, zabarkeriaz edo utzi-keriaz joketzea”

Hemeretzi. Honela idatzita agertuko da 60. artikulua:

“60 artikulua. Hutsegite larriak.

Hauek dira hutsegite larriak:

a) Puntualtasuneko hamabi hutsegite baino gehiago, hil berean, justifikatutako arrazoirik gabe.

b) Hilabeteko epean lanera ez joatea bost aldiz baino gutxiagotan, justifikatutako arrazoirik gabe.

c) Lanaldia ez betetzea, justifikatutako arrazoirik gabe, bost aldiz baino gutxiagotan hilabeteko epean.

d) Herritarrekiko, agintariekiko, nagusiekiko, lankideekiko edo menpekoekiko errespetu falta.

e) Zerbitzuetako bulegoetan, instalazioetan, ibilgailuetan, materialean eta agirietan kalte larriak eragitea.

f) Zerbitzuaren berezko arloetan nagusiek idatziz emandako aginduak ez betetzea.

g) Legeek abstenitzeko ezarritako arrazoiren bat gertatzen denean, prozedura administratiboren batean parte hartzea.

h) Lanean dihardutela iskanbilak edo liskarrak sortu eta horrelakoetan parte hartzea, karguaren berezko eginkizunak ez diren bitartean.

i) Lanbideko sekretuaren betebeharra ez betetzea.

j) Beren eskurantzez gehiegikeriaz baliatzea, herritarren kaltetan, egitate hori hutsegite larriagoztat hartzen ez bada.

k) Zerbitzuari buruz txosten edo erabaki gezurrezko edo alderdikoak egin edo hartzea, larriagoztat hartzen ez bada.

l) Arauzko armak zerbitzutik kanpo edo haiek erabiltzeko arauak hautsiz erabiltzea, gauzei edo pertsoneri kalte egin gabe.

m) Zigorlana egotea delitua diren eta hutsegite oso larritzat tipifikatuta ez dauden jokabide edo jokaerengatik, edo lanbide-eginkizunetan jardutearen arloko arau-hauste penal batengatik.

n) Zerbitzuan mozkortzea edo droga toxikoak, estupefazienteak edo substantzia psikotropikoak kontsumitzea, eta bidezko egiaztapen teknikoei uko egitea.

o) Arrazoirik gabe, esleitutako zerbitzuan ez egotea edo bertatik alde egitea, lokartzea edo



emandako zerbitzuak eskatzen duen arreta desbideratzen duen beste zerbaitetan aritzea.

p) Errendimendurik eza behin eta berriz eta arrazoirik gabe gertatzea, zerbitzuen eraginkortasunaren kaltetan bada, eta zerbitzurik ez ematea ustezko eritasuna izatearen aitzakian edo duen eritasuna baino larriagoaren plantak egitea, edo sendatzea eragotzi edo luzatzen duten jardueretan aritzea.

q) Eginkizunekin bateraezinak diren jarduera publiko edo pribatuetan aritzea.

r) Zabarkeria arinaren ondorioz armak galtzea, istripuz nahiz lapurtuta.

s) Menpekoak beren eskubideez balia daitezen galaraztea.

t) Gertaera edo inguruabar larrietan lehenbailehen laguntzarik ez ematea, horretara beharturik egonez gero.

u) Polizia lanetan aritzeak dakartzan betebeharrak eta beharkizunak ez betetzea zabarkeria larriaren ondorioz.

v) Sexu-jazarpena”

Hogei. Honela idatzita agertuko da 61. artikulua:

“61 artikulua. Hutsegite oso larriak.

Hutsegite oso larriak:

b) Hilabeteko epean lanera ez joatea bost aldiz baino gehiagotan, justifikatutako arrazoirik gabe.

c) Lanaldia ez betetzea, justifikatutako arrazoirik gabe, bost aldiz baino gehiagotan hilabeteko epean.

c) Doluzko delitu batengatik zigortuta egotea, askatasuna kentzeko zigorra, urtebetetik gorakoa, baldin badakar.

d) Bakarka nahiz taldeka ez obeditze nabarmena.

e) Eginkizunetan ari dela, ez betetzea Nafarroako Foru Eraentzari begirunea izateko betebeharra eta Konstituzioari nahiz legeei men egiteko beharra.

f) Legez kanpoko grebetan parte hartzea.

g) Neutraltasun edo independentzia politikoa urratzea, esleituriko ahalmenak edonolako edo edonongo hauteskundeetan erabiliz.

h) Herritarrei, menpekoei edo Administrazioari kalte larria eragiten dien agintekeria, bai eta zainzapean dituen pertsonak torturatzea edo gizale-

gez ez tratatzea, mesprextatuz, diskriminatuz edo laidotuz.

i) Arauzko armak zerbitzutik kanpo edo zerbitzuko egintzetatik kanpo erabiltzeari buruzko arauak hautsiz erakutsi edo erabiltzea, horren ondorioz gauzei edo pertsoneri kalte egiten bazaie edo alarma publikoa gertatu bada.

j) Zabarkeria larriaren ondorioz armak galtzea, istripuz nahiz lapurtuta.

k) Laneko jazarpena.

l) Edozein eginbehar profesional ez betetzea, zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia nabarmen eragotziz gero edo Administrazioari edo herritarrei kalte larriak eraginez gero edo pertsona edo ondasunentzat edo segurtasun publikoarentzat arrisku nabarmena sorraraziz gero”

Hogeita bat. Honela idatzita agertuko da 62. artikulua:

“62. artikulua. Zehapenak.

1. Hutsegite arinek zehapen hauek jaso ditzakete:

a) Ohartarazpena.

b) Enplegu-soldaten etenaldia, egun batetik lau egunera bitartekoa, antzinatasuna galdu gabe, ondorio guztietarako.

2. Hutsegite larriek zehapen hauek jaso ditzakete: a) Beste lanpostu batera behartuta lekualdatzea, bizitokia aldatuz nahiz aldatu gabe, ezartzen den eperako. Epe hori, nolana ere, ez da sei hilabetekoa baino luzeagoa izanen.

b) Enplegu-soldaten etenaldia, bost egunetik hogeita hamarrera bitartekoa, antzinatasuna galdu gabe, ondorio guztietarako.

c) Eginkizunen etenaldia, hiru hilabete bitartekoa edo epai judizial batek ezartzen duen eperako.

3. Hutsegite oso larriek zehapen hauek jaso ditzakete:

a) Eginkizunen etenaldia, hiru hilabete hiru urtera bitartekoa, edo epai judizial batek ezartzen duen eperako.

b) Zerbitzutik kentzea.

4. Zerbitzutik kentzeko zehapenak funtzionario izaera galtzea ekarriko du berekin.

a) Eginkizunen etenaldiko zehapenak funtzionario izaerari dagozkion eskubide guztiak galtzea ekarriko dio zehapena jaso duen funtzionarioari, zehaztuko den denborarako.

5. Ez dira zehapena izanen puntualitatean atzeratzeagatik edo lanera arrazoirik gabe ez etortzeagatik lansariei proportzioan eginiko murrizketak. Murrizketak zuzenean eginen dira eta beti.

6. Diziplina zehapenak espediente pertsonalean jasoko dira, zer hutsegitek eragin dituzten adierazirik.

7. Zehapenak mailakatzeko kontuan hartuko dira, betetze eta ez-betetzeez gain, honakoak ere, proportzionaltasunaren printzipioarekin bat:

- a) Nahita egitea.
- b) Zerbitzuen funtzionamendu egokian sortutako nahasmendua.
- c) Administrazioari edo herritarrei eragindako kalte eta galerak. d) Hutsegiteetan berrerortzea.
- e) Hutsegitean edo ez-betetzean izandako parte-hartzearen maila.
- f) Segurtasun publikoari begira izandako garrantzia.

8. Hutsegite oso larriengatik zehapenak hiru urteren buruan preskribatuko dira, hutsegite larriek urtebeteren buruan eta arinek, berriz, hilabeteren buruan”

Hogeita bi. Honela idatzita agertuko da 63.4. artikulua:

“63.4 artikulua. Berrerortzea eta aurrekariak deuseztatzea.

4. Deuseztatzearen ondorioz, ohartarazpena baliogabetu eginen da, eta ez da haren ziurtagiririk egiterik izanen.

Hogeita hiru. Honela idatzita agertuko da 65. artikulua:

65. artikulua. Hutsegite larriak edo oso larriak ezartzeko prozedura.

1. Hutsegite larri edo oso larriengatik diziplina-espedientea irekitzeko eskumena duen organoak behin-behineko etenaldia edo beste lanpostu batera atxikitzea erabaki dezake, kautelazko neurri gisa. Behin-behineko neurriak hartzeko ebazpena eman baino lehen, interesdunari entzunaldia emanen zaio, hiru egun baliodunetz. Nolanahi ere, behar bezala arrazoituta presa edo arrisku handiko kasuetan, buruak edo ofizialak arma eta kredentziala kendu ahalko dizkiote funtzionarioari kautelazko neurri gisa, eta organo horrek hiru egun balioduneko epean, gehienez ere, berretsi beharko du erabaki hori.

2. Behin-behineko etenaldiak edo beste lanpostu bati behin-behineko atxikitzeak espedientea-

turik edo auzipeturik dagoen funtzionarioak arma, kredentziala eta uniforme behin-behinekoz galtzea ekar dezake, bai eta bere kidegoko instalazioetara baimenik gabe sartzeko debekua ere. Kautelazko neurriei eutsi edo horiek bertan behera uzteari buruzko ebazpena ematerakoan egindakoen larritasuna baloratuko da, bai eta kasu bakoitzaren inguruabar zehatzak eta espedientaturiko funtzionarioaren espediente pertsonala ere. Kautelazko neurriak ezarri edo luzatzea erabakitzen duen ebazpena arrazoitua izan beharko da.

3. Behin-behineko etenaldia erabakitzen bada, hilabetekoa izanen da, eta epe hori beste hilabetez luzatu ahalko da, sei hilabete egin arte gehienez.

4. Behin-behineko etenaldian dauden funtzionarioek eskubidea izanen dute, soilik, beren mailako hasierako soldatari, graduari, antzinatasuneko sariari eta familia laguntzari dagozkien lansariak. Behin-behineko etenaldiaren denbora kontuan hartuko da eginkizunen etenaldiaren zehapena betetzearen ondorioetarako, zehapen hori ezartzen bada. Behin-behineko etenaldia irmo bilakatzeko ez bada, funtzionarioari kendu zaizkion eskubide guztiak aitortuko zaizkio. .

Espedientaturiko funtzionarioa beste lanpostu bati behin-behineko atxikirik egon beharreko denbora ez da izanen diziplina-espedientearen iraupena baino luzeagoa.

5. Hutsegite larri edo oso larriengatik zehapen espedientea hasi baino lehen, diziplina-espedientea irekitzeko eskumena duen organoak, gertaerak argitze aldera, aurretiazko informazio-aldi bat irekitzeko agindu ahalko du, kasu zehatzaren zer-nola-koak ikertu eta prozedura abiarazi behar den ala ez den erabakitzeko.

Zilegi izanen da aurretiazko informazio hori erreserbatua izatea, eta ez da hilabete batetik goiti luzatuko, non eta espresuki ez den erabakitzen beste epe jakin baterako edo batzuetarako luzatzea.

Idatz-zati honetan aipatzen diren aurretiazko jarduketengatik ez da zehapen prozedura irekitzat hartuko. Prozedura osoan, baita idatz-zati honetan aipatzen den aurretiazko informazioan ere, funtzionarioak legelari baten laguntza eduki ahalko du.

6. Prozedura diziplina-espedientea irekitzeko eskumena duen organoak hala ebatzirik irekiko da, ofizios edo salaketaren ondorioz gauzatutako jarduketez baliatuz. Diziplina-espedientea hasten duen ebazpenak egintzetarako instruktorea izendatuko du eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio eta, salatzaile izan bada, hari ere bai. Fun-

tzionario edo lan-kontratudun bat izendatuko da instruktore, hautapen-prozeduran zuzenbideko lizentziatuaren titulua eskatu zaieneta bat hain zuzen. Ustez larriak diren hutsegiteen kasuan, goragoko lanpostua duen polizia kidegoko kide bat izendatu ahalko da horretarako.

7. Instruktoarak karguen plegu bat idatziko du, zehapen proposamena ere izanen duena, eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio. Hark hamar egun balioduneko epea izanen du bere eskubideen alde bidezko iruditzen zaizkion alegazioak egiteko eta datuak, informazioak edo dokumentuak aurkezteko, bai eta kasurako iruditzen zaion froga proposatzeko.

Karguen pleguan beti honako jakingaiak ezarriko dira:

a) Ustezko arau-hausleen identifikazioa.

b) Egitate egiazatuak, nabarmendurik zein diren garrantzitsuak arau-hausteen tipifikazioari dagokionez eta zeintzuk duten garrantzia zehapenak mailakatzeko.

c) Ustezko arau-haustea, zehazturik zen den edo zein diren hautsitako araua edo arauak.

d) Zehapenik tokatzen bada, zein den, zenbatekoa den eta zein mailakoa den.

e) Zein organok duen prozedura ebazteko eskumena eta zein arauk ematen dion eskumen hori.

8. Espedientatuak bere borondatez aitortzen badu erantzulea dela, instruktoreak organo eskudunari igorriko dio espedientea, ebazpena eman dezan, ezertan galarazi gabe tramitatzeko segitzea baldin eta iruzur zantzu arrazoizkorik badago edo beste pertsona edo entitate errudunen bat isilpean geratu den susmoa baldin badago, edo prozedura hasteak sortu duen kontua ororen interesekoa baldin bada.

9. Ofizioz edo ustezko arau-hausleak eskatuta, behar adina frogak egin edo onartuko dira, gertatutakoak eta erantzukizunak finkatzeko. Gertaerakin duten loturagatik azken ebazpena ustezko arau-hauslearen alde aldatu ezin duten frogak soilik ukatu ahalko dira.

10. Alegazioak aurkezteko aurreikusitako epea iraganik, frogarik egin behar bada frogak eginik, eta beharrezko irizten zaien eginbideak egin ondoren ere, instruktoreak karguen plegua jakinarazpenean bezala mantentzen badu, organo eskudunari igorriko dio espedientea, eta horrek gehienez hilabeteko epean eman beharko du kasuko ebazpena edo bestela instruktoreari aginduko dio beharrezko iruditzen zaizkion eginbide osagarriak egin ditzala.

Egindako alegazio eta frogen ondorioz gertaera berririk edo bestelakorik azaltzen bada, edo karguen pleguan aipatzen dena baino larriagoko kalifikazioa sortzen bada, instruktoreak karguen plegu berria eginen du bidezko den zehapenarekin eta interesdunari jakinaraziko dio, hark hamar egun balioduneko epean bidezko iruditzen zaion guztia alega dezan.

Aurreko lerroaldean agindu denetik kanpo uzten dira kasu horiek baldin eta gertaera berriak edo hutsegitearen nahiz zehapenaren kalifikazio berriak alegazioen edo espedientearen interesdunak hala eskatuta egindako frogen ondoriozkoak badira, ezarri beharreko zehapena hasiera batean proposatutakoa baino larriagoa ez denean.

11. Organo eskudunak bidezkoa den ebazpena emanen du, ebazpen arrazoitua alegia. Ebazpenean espedientearen planteaturiko gai guztiak ebaztuko dira. Ez da zilegi izanen prozeduran barna egiaztatu direnez kanpoko gertaerarik onartzea ebazpenean, nahiz eta beste balorazio juridiko bat izan. Diziiplina-prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean egindako frogen balorazioa jasoko da, bereziki erabakia oinarritzeko erabili direnena, eta bertan finkatuko da zein izan diren egitateak eta zein erantzulea edo erantzuleak, egindako hutsegiteak eta ezarritako zehapena edo zehapenak.

Ebazpena administrazio bidean irimo bihurtzen denean izanen da betearaztekoa.

Ebazpenean, kasua bada, behar diren kaute-lazko neurriak hartuko dira, ebazpenaren eragin-kortasuna segurtatzeko ebazpena betearazi beharrekoea ez den artean.

12. Diziiplina-prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izanen da, espedientea irekitzeko ebazpena eman zen egunetik hasita. Epe hori gehienez ere beste sei hilabetez luzatu ahalko da, organo eskudunak emandako ebazpen arrazoituaren bidez. Epe horren ondorioetarako ez da inolaz ere kontuan hartuko diziiplina-espedientea ustezko erantzuleari egotzi ahal zaion arrazoiengatik geldiarazirik dagoen denbora."

Hogeita lau. Bigarren xedapen iragankorra, Nafarroako Foruzaingoaren Kontseiluaren eraketa, edukirik gabe gelditu da, deuseztatu egin baita.

Hogeita bost. Bigarren xedapen iragankorra horrela geldituko da:

"Bigarren xedapen iragankorra.

Titulazio akademikorik eduki gabe komisario eginkizunetan diharduten profesionalak aukera izanen dute lanpostu horretara sartzeko, foru lege honek indarra hartu ondotik deitzen diren barne-

sustapeneko deialdien bitartez, 5 urteko epean; nolana ere, 36. artikuluan eskatzen diren gaineko baldintzak bete beharko dituzte, eta inguruar hori iraungi beharreko egoera pertsonal gisa hartuko da.

Hogeita sei. Zortzigarren xedapen iragankorra. Plan zuzendaria

“Foru lege honek indarra hartu eta 3 hilabeteko epean, Nafarroako Polizien Plan Zuzendaria aurkeztu beharko zaio Parlamentuari, onetsi dezan”.

### **Xedapen gehigarriak**

Hogeita zazpi. Zazpigarren xedapen gehigarria. Bigarren jarduerari buruzko erregelamendua.

“Foru Lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, bigarren jarduera arautzeko erregelamendu bat onetsiko da. Bigarren jardueraren egoera erregelamendu bidez garatzen ez den bitartean, 55 urteko adinera iristen diren Nafarroako polizietako funtzionarioak egoera horretara pasatu ahal-

ko dira destinorik gabe, eta oinarrizko ordainsari guztiak eta dagokien kategoriako ordainsari osagarri orokorren ehuneko laurogei jasotzen jarraituko dute”.

Hogeita zortzi. Zortzigarren xedapen gehigarria. Baimendu gabeko jarduerak eta jarduera bateragarriak.

“Erregelamendu bidez ezarriko dira baimendu gabeko jarduerak eta polizia-eginkizunekin bateragarri direnak. Erregelamendu hori onesten ez den bitartean, Nafarroako polizia-kidegoetako funtzionarioek debekatuta izanen dute soilik segurtasun publikoarekin nahiz pribatuarekin lotutako eginkizunetan jardutea”.

Hogeita bederatzia. Bederatzigarren xedapen gehigarria. Ordainsariei buruzko erregelamendua.

“Foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak ordainsariei buruzko erregelamendu bat onetsiko du, Nafarroako Foruzaingoaren kidegoko ordainsarrietan egun dauden aldeak gutxitzeko”.



---

**D saila:**  
**HITZARMENAK**

---

**Estatuko Administrazio Orokorraren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta “Trenbide Azpiegituren Administrazioa” (ADIF) entitate publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Zaragoza-Iruña abiadura handiko linearen Nafarroako zatia egiteko.**

*OSOKO BILKURAK EMANDAKO BAIMENA*

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko apirilaren 8an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: “Estatuko Administrazio Orokorraren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta ‘Trenbide Azpiegituren Administrazioa’ (ADIF) entitate publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Zaragoza-Iruña abiadu-

ra handiko linearen Nafarroako zatia egiteko”. Haren testua 2010eko apirilaren 6ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**Estatuko Administrazio Orokorraren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Trenbide Azpiegituren Administrazioaren (ADIF) arteko lankidetzaren hitzarmena, Zaragoza-Iruña abiadura handiko linearen Nafarroako zatiko zenbait jarduketaren mandatua egiteko.**

*OSOKO BILKURAK EMANDAKO BAIMENA*

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko apirilaren 8an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: “Estatuko Administrazio Orokorraren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Trenbide Azpiegituren Administrazioaren (ADIF) arteko lankidetzaren hitzarmena, Zaragoza-Iruña abiadura handiko linearen

Nafarroako zatiko zenbait jarduketaren mandatua egiteko”. Haren testua 2010eko apirilaren 6ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Nafarroako osasun-sistema pribatizatzeko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako osasun-sistema pribatizatzeko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernu Ekonomia eta Ogasun Departamentuak gastu-muga ezarri du departamentu bakoitzean, eta gastatzeari utziko dion diruarekin, ehun milioi euro inguru, poltsa bat sortuko du, eta bertatik baliabideak atera ahalko dira laguntza-zerbitzuetan, batez ere osasun-sistema koetan, egon litezkeen balizko defizitak estaltzeko.

UPNren Gobernu Osasun Departamentuak jadanik murriztu du gastua: lehenbizi, gertatzen diren langile-bajak ez ordeztuz; ondoren, oporrak direla-eta oheak murriztuz; eta orain berri izan dugun "ez-murrizte" hori dela-eta, profesionalen prestakuntza izoztu egiten da.

Galdera

• Zer neurri hartu behar ditu Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, iragarritakoez aparte, Nafarroako osasun-sistema pribatizatzeko?

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetarako hezitzaile izateko oposizio-lehiaketaren deialdiari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetarako hezitzaile izateko oposizio-lehiaketaren deialdiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari M<sup>a</sup> Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak apirilaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 24ko 97/2009 Ebazpenaren bitartez onetsi zen Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetarako hezi-

tzaile izateko 14 postu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Deialdi horretako 2. puntuan zehazten dira hautagaien betekizunak: besteak beste, 16 urteko adina beteta izatea eta Batxilergoko edo baliokide den Bigarren Mailako Lanbide Heziketako (edozein espezialitatetako) titulua izatea. Betekizun horiek bete-betean urratzen dute 2007ko martxoaren 26ko Foru Dekretuko 17. artikulua ezarritakoa. Titulazio egokiak dira irakasle-titulazioa (orain gradua), haur-hezkuntzaren espezialitatearekin, edo adin horri egokituriko beste titulazio bat (Lanbide Heziketako Haur Hezkuntza).

Zenbait errekurtsio aurkeztu dira, deialdiaren baldintzak alda daitezen eta hautaketa-prozesua geraraz dadin; hala ere, aurrera darrai, eta proba hil honen 17an egingen da.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zergatik darrai aurrera probak, nahiz eta haren deialdian akatsak izan direla egiaztatu den eta, beraz, bai oposizioko partaideei bai horien helmuga izanaren diren ikastetxeei ere kalte egin ahal bazaie?

Iruñean, 2010eko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes